

HONNI

Honni enpresa sortze bidean gauden batxiler bigarren mailako ikasle talde bat gara, hain zuzen ere; Haizea Egizurain, Iker Esnaola, Nora Garrido, Nora Lopez, eta Olatz Mitxelena. Gizartean dauden beharrak aztertzerako orduan, behar handienetako bat gure planeta zaintzea dela ohartu ginen. Ondorioz, kutsadura murriztea helburutzat hartuz, banbuzko metxeroak sortzen dituen enpresa bat sortzea proposatu genion geure buruei. Hala, erretzearekin kutsatzen dena gutxi ez balitz, plastiko eta gasez osatutako metxero adizionalak ordezkatu ahal izateko. Ideiarekin bat egiten duten pertsoneri erreferentzia eginez, gure merkatu segmentua edo bezeroak hurrengoak izango liratekeela esango genuke, erretzaileak zein kandelak pizteko, sukaldatzeko edota dekoratzeko erabiliko dituztenak.

Proiektu hau gauzatzeko CANVAS ereduan oinarritu gara. Horrela, atal ezberdinak landuaz gure hasierako asmoa gorpuztu dugu. Lehenik eta behin, beharra detektatu genuen eta brainstorminga egin ondoren, gure enpresa ideia finkatu genuen. Ondoren, gure produktua nori salduko diogun aztertu eta merkatuaren segmentazioa idatzi genuen. Jarraian, beste sozietate batekin elkartzeak ekar ditzakeen onura eta galerak aztertuz, funtsezko elkarteak idatzi genuen. Gero, gure enpresak irabazi iturriak nondik lortuko dituen kalkulatu genuen irabazi iturriak dokumentuan. Gure produktua saltzeko moduen inguruko azterketa eginez, kanalak idatzi genuen eta bezeroekin nola kontaktatuko dugun aztertzeko bezeroekiko harremanak egin genuen. Ondoren, zein lehengai beharko ditugun eta produktuaren estrategia zein izango den adostu genuen. Azkenik, gure enpresaren kostuak zein eta nolakoak izango diren aztertu genuen. Pauso guzti hauek jarraituz, gure enpresa ideia gorpuztu dugu. Hots, Honni enpresa martxan jarri dugu.